

ELIKAKATEKO KONTROL OFIZIALEN FUNTZIONAMENDUA EUROPAN


Elikakatean zehar egiten diren kontrol ofizialek ikuspegi baliotsua ematen dute EBko osasunaren eta elikagaien segurtasunaren egoeraz; izan ere, agintari eskudunei ahalbidetu egiten diete gabeziak identifikatzea eta behar den bezala heltzea.

Europako Batzardeak Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztutako txostenak erakutsi du **estatu kideek bermatu egiten dutela elikakate osoan zehar egindako kontrol ofizialen betetze maila ona dela**, baita elikagaien segurtasunari, animalien eta landareen osasunari eta animalien ongizateari buruzko arauak betetzen direla ere.

Sarrera

Europako araudiak eskatzen dituen kontrol ofizialeko planen helburua da arriskuak alde aurretiko ikuspegiaren bidez atzematea eta desagerraraztea; beraz, kontrolak zehatz planifikatu behar dira, arriskuen azterketen arabera.

Estatu kide bakoitzak plan bakar batean jaso behar ditu tartean dauden agintari eskudun guztien kontrolak, elikagaien lehenengo ekoizpenean egiten diren etatik kontsumitzaileari saltzeko guneetan daudeneraino. Plan horiek ikuspegi baliagarria ematen dute osasunaren eta elikagaien segurtasunaren egoeraz, oro har. Halaber, ahalbidetu egiten dute agintari eskudunek gabeziak identifikatzea eta horiei behar den bezala heltzea.



Europako araudiak, bestalde, eskatu egiten du batzardeak txosten bat egitea, urtero, estatu kideetako kontrolen funtzionamendu orokorrari buruz. Txosten hori Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztu behar zaio, eta osatzeko, herrialde bakoitzeko urteko txostenak eta Batzardeak berak egindako ikuskaritza lanak erabili behar dira, bestelako informazio garrantzitsuekin batera.

Txosten orokorra

Europako Batzardeak Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztutako azken txostenak erakutsi du **estatu kideek bermatu egiten dutela elikakate osoan zehar egindako kontrol ofizialen betetze maila ona dela**, baita elikagaien segurtasunari, animalien eta landareen osasunari eta animalien ongizateari buruzko arauak betetzen direla ere.

Txostenak berretsi egiten du aurrera egin dela kontrol-tresna eta -baliabideen erabilera efizientean eta sektore guztietako kontrolen planifikazioan, exekuzioan eta koordinazioan. Hala ere, honako hauekin lotutako hobetu beharreko esparruak atzeman dira:

- Kontrol-datuen koherentzia eta erkagarritasuna.
- Auto-ebaluazioak egiteko sistemak.

Arriskueta oinarritutako kontrolak

Estatu kideen urteko txostenen azterlana oinarri gisa hartuta, Batzardeak egiaztatu egin du agintari nazional eskudunek serio hartzen dutela euren zeregina, arriskueta gero eta gehiago oinarritzen diren kontrolen bidez. Handitzeko joera hori aurkitu da estatu gehienetan, eta beste horrenbeste gertatu da kontrolak sektore berrietara zabaltzeko joerarekin. Alabaina, herrialde batzuek ez dute arriskuak ebaluatzeko eredu bat sektore guztietan: hori berresten dute Batzardearen beraren ikuskaritza lanek.

Kontrolak arriskueta oinarritzearen ondorioetako bat da betetze-mailak egiazki direna baino handiagoak direla ematea; izan ere, kontrolak indartsuagoak dira hauste-

historiala duten erakundeen artean. Horrek, gainera, zaildu egiten du kontrolatuko emaitzak eta joeren azterketa konparatzea, eta oztopatu egiten du elikagaien segurtasunaren egoera orokorrari buruzko ondorioak atera ahal izatea.

Kontrolen emaitzak

Urteko txostenek erakusten dute Estatu gehienek dituztela adierazle estrategikoak, operatiboak edo betetzeari lotutakoak, emaitzak ebaluatze aldera. Alabaina, estalitako sektoreak eta eraginkortasun orokorrari buruzko adierazpenen aitorpenak nabarmen aldatzen dira.



Sarritan, datuak ematen dira ikuskatze-prozesuari buruz: aurreikusitako eta gauzatutako ikuskaritza kopurua, esate baterako. Ez da hainbeste datu ematen kontrol ofizialeko emaitzez, hutsegiteak atzeman direnean hartutako neurriez edo kontrolen joerez. Herrialderen batek azpimarratu egin du beharrezkoa dela kontrolako langileei prestakuntza ematea araudia betetzeko eta administrazio-zehapenak ebazteko.

Kontrolen eraginkortasuna egiaztatzea

Urteko kontrolen bidez lortu da egiaztatzea kontrol-agintarien zaintza eta eraginkortasuna indartzeko tresna berriak sartzen ari direla, kontrolen betetze-maila eta efikazia egiaztatzeko prozedurekin:

- ✓ Betetze-maila egiaztatzea: horri esker egiaztatu daiteke kontrolak ondo egiten diren eta kontrol-planen, prozeduren, giden eta abarren arabera gauzatzen ari diren.
- ✓ Kontrolen eraginkortasuna egiaztatzea: horri esker egiaztatu daiteke kontrol-prozedurak koherenteak diren eta ahalbidetu egiten ote duten proposatutako helburuak lortzea.

Ikuskaritzak

Kontrol-sistemak ebaluatzeko ikuskaritzak tresna garrantzitsua dira. Kudeatzaileei funtsezko informazioa ematen diete kontrol-sistemen eraginkortasunaren inguruan, arestian deskribatutako egiaztatze-lanak inola ere ordezkatu ezin dituzten arren.

Urteko txostenen azterketa oinarri gisa hartuta, Estatu kide guztiek egiten dituzte ikuskaritzak, 882/2004 Araudiak (EE) ezartzen duenarekin bat. Alabaina, beti ez da ikuskaritzetako emaitzen ikuspegi orokorra aurkezten (zehazki, deszentralizatutako eskualdeetan egiten direnean) eta ez da ikuskaritzako txostenen jarraipenari buruzko informaziorik ematen.

Baliabideak

Esparru honetan berrikuntzak azaldu dira; hala nola, antolamendu-aldaketa garrantzitsuak eta laborategiko zerbitzuen arrazionalizazioa. Izan ere, estatu kideen ustez, funtsezkoa da baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea, bereziki gaur egungo egoera ekonomikoan, non gastu publikoa presiopean baitago.

Beste alde batetik, estatu kide batzuek adierazi dute aurrekontu-murrizteek ahuldu egin dutela kontrol-sistemen jarduera, baita ikuskaritza-sistemak ere.

Koordinazioa

Esparru honetan ere adibideak eman dira kontrol-organismoen arteko koordinazioaren esparruko aurrerapausoez eta estatu kideetako koordinazio-esparruen hobekuntzaz, deszentralizatutako eskumenekin.



Batzordearen ikuskaritzak

Batzordeak 250 ikuskaritza inguru egiten ditu urtean, eta horiek oso garrantzitsuak dira aztertu beharreko gabeziak identifikatzeko eta neurri zuzentzaileak hartzen direla bermatzeko.

Tokian egindako ikuskaritza zehatzen eta sektore guztiak barne hartzen dituzten jarraipen orokorreko ikuskaritzen bidez, Batzordeak aukera izan du kuantitatiboki berrikusteko estatu kideek neurri zuzentzaileak hartzeari dagokionez egindako aurrerapausoak.

Estatu kideen ikuskaritza-txostenak eta ekintza-planak argitaratuta, batzordeak informazioa ematen du EBko legegintzaren aplikazioaz estatu kide bakoitzean.

HOBEKUNTZA ARLOAK

Batzordeak hobekuntzak lor ditzaketzen zenbait alderdi atzeman ditu, hala nola, honako hauek:

- ✓ Estatu kideen baitako kontrol-datuen koherentzia eta erkagarritasuna: interkonexio handiagoa duten datuen aurkezpenen bidez lor daiteke hobeto erakustea zein neurritan bihurtzen diren kontrolak hutsegiteen atzemate (eta, era berean, exekuzio-ekintza eraginkor).
- ✓ Txostenetan indar handiagoa egingo balitz auto-ebaluazioaren inguruan, helburu gisa hartuta ikuskaritza nazionalerako emaitzak eta berrikuste-prozesuak etorkizuneko planifikazioan duen eragina, zalantzarik gabe hobekuntza-prozesua indartu egingo litzateke.

ONDORIOAK

Europako Batzordeak Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztutako txostenak erakutsi du estatu kideek **bermatu egiten dutela elikakate osoan zehar egindako kontrol ofizialen betetze maila ona dela**, baita elikagaien segurtasunari, animalien eta landareen osasunari eta animalien ongizateari buruzko arauak betetzen direla ere.

Alabaina, zenbait alderditan hobekuntzak lor daitezke; zehazki, kontrol-datuen koherentziari eta erkagarritasunari, eta estatu kide bakoitzak egiten dituen auto-ebaluazioei dagokienez.

ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK

[Batzordearen txostena](#) Europako Parlamentuari eta Kontseiluari (2013ko urria).

[882/2004 Araudia](#), kontrol ofizialei buruzkoa.

[Elikakatea kontrolatzeko plan nazionala \(2011-2015\)](#) AESAN.

Europako Batzordeko [Ikuskaritzen Programazioa](#).

Estatu kideen [urteko txostenak](#).